

ABERASTASUNA BANATZEKO BURUJABETZA FEMINISTA

Erosketak egitean prezioak begiratu behar izatea, alokairua ordaindu ondoren hilabete amaierara iristeko kalkuluak egitea edota lanaldia bukatu ostean etxera iritsi eta zaintza nahiz etxeko lanak pilatzea. Erosi ezin dutenak eta etxebizitzarako sarbiderik ez dutenak ere geroz eta gehiago dira. Bizitza bera garestitu egin da. Ez bakarrik dirutan, baita denboran, energian eta aukeretan ere. Etxebizitza, energia eta elikadura geroz eta garestiagoak diren bitartean, soldatak eta lan baldintzak ez dira neurri berean hobetzen, ezta banatzen ere. Gero eta zailagoa da bizi baldintza duinak bermatzea.

Testuinguru honetan kokatzen da martxoaren 17ko Greba Orokorra. Egungo ekonomia sistemak soilik merkatu erregulatuan gertatzen dena hartzen du kontuan, albo batera utziz bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren bestelako lanak, ikusezinak direnak, aitortzarik ez dutenak; emakume* eta migratuek egiten dituztenak, hain zuzen. Ongi dakigu lan ezberdinen balioa ez dela neutralki ezarri. Lanaren balioa nork egiten duenaren arabera banatua dago, eta jendartearen erdia menpeko izatera kondenatzen gaitu.

Grebarenak ez dira aldarrikapen eta kokapen berriak guretzat. 2023ko Greba Feminista Orokorrean kalera atera ginen aipaturikoak salatzeraz eta neurri konkrituak aldarrikatzera, denon bizitzak erdigunean jartzeko exijitzera, eta horretarako dagozkigun ardurak hartzera. Oraindik ere, aldarri horiek ezinbestekoak zaizkigu eta zuzenean lotzen dira martxoaren 17an ohiukatuko ditugun aldarriekin. Nagusiki, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 1500 izan dadin exijitzera eta hemen erabakitze eskubidea exijitzera.

1.500 baino gutxiago jasotzen duten %66,91 emakumeak dira. Emakume langile guztien artean, %28,69ak jasotzen du 1.500 euro baino gutxiago. Euskal Herritik kanpo jaio direnen artean, emakumeen kasuan %41,73ak jasotzen du 1500 euro baino gutxiago.

Greba honek agerian uzten du beste behin, bizi baldintzak eraldatzeko, baldintza materialak behar ditugula. Eta baldintza material duinak exijitzen ditugu lan ordaindutik harago. Bizitzaren aurka egiten duen egungo sistema kapitalista, biozida, zisheteropatriarkal arrazista eta kolonialistari aurre egiteko, soldata duinen aldeko borrokaz gain, egiturazko eraldaketak aldarrikatzen ditugu; zaintza lanen kolektibizazioa, lan banaketa sexualarekin amaitzea, bizitza duinak sostengatuko dituen denboren eta erritmoen berrantolaketa baten alde egitea... Lurraren eta pertsonen bizitza erdigunean jarriko duen eredu sozial berri bat irudikatu eta sortzeaz ari gara. Horretarako, gaur egungo errealitatetik abiatuta, alternatibak bultzatu eta etorkizun justuago bat egunez egun eraikitzea dagokigu. Bakoitzak bere arduratik eta lekutik.

Martxoaren 17an hemen erabakitzearen aldarria erdigunera ekarriko dugu, hemen Euskal Herrian. Hego Euskal Herrian. Eraiki nahi dugun herri burujabearen urrats bat gehiago emateko neurri gisa.

Bilgune Feministako kideok bat egiten dugu Greba Orokorrarekin. Etorkizuneko Euskal Herria Feminista eraikitzen ari gara, eta horretarako burujabetza feminista eskuratzen joan behar gara arloz arlo. Bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren arlo guztietan. Baliabide ekonomiko eta energetikoetan. Gorputzen burujabetzan. Herri honen erabakitze eskubidean. Bizitza duinak bermatuko dituzten lege propioetan. Burujabetza feminista aldarrikatuko dugu desberdinkeriekin eta menpeko harremanekin amaitzeko proposamen erradikal gisa.

Martxoak 17 Greba Orokorra!
Gora borroka feminista!